



Gorka Zozia - @zotz_
Kimikaria

Eguzkia nahi dut iratzargailu

Pasa da astebete kasik, baina oraino ezin ohitua nabil eguzkia baino lehen esnatzera. Adituek diote egun gutxi batzuetan egiten dela gorputza ordutegi berrira, baina nire burua oraindik amorratzen dago neguko azken txanpan lorturikoa –egunsentia-rekin esnatzea– apiril erdira arte ezingo dudalako berreskuratu. Negan atzera egitea bezala bizi izan dut azkena izan zitekeen ordu aldaketa honen trantzea.

Gogoratuko duzuenez, duela hila-
bete batzuk zalaparta eragin zuen
negu eta uda artean ordua gehiago
ez aldatzeko proposamenak, eta, ja-
kin berri dugunez, 2021. urtera atze-
ratu da aurrean indarrean sartzekoa
zen erabakia. Hausnarketa eta kon-
tzentziazioa behar ei dira oraindik.

Ni guztiz ados naiz; biziki eztabaida interesgarria pizten da ordu aldatetaren proposamenaren harira. Sozioekonomia, geopolitika, kultura... dena txirikordatuta azaltzen da ordularien orratzen artean. Urriko aldateta goxoago hartzen badugu ere, oro har ez da jendearen gustukoa ordua aldatzen ibiltzea, eta berehala dator lehen eztabaida: neguko ordua (GTM+1) ala udakoa (GTM+2) hartzea, zer den hobe.

Euskal Herrian, 08:30ak aldera ateratzen da eguzkia beranduen lehen kasuan, bigarrenean, 09:30ak arte atzeratuko litzatekeelarik egunsentia abenduan. Alta, 18:30ak arte argia izango genuke kasu horretan, ezaguna dugun negukoarekin 17:30erako ilunabarra delarik. Ekaineko solstizioaren bueltan, berriro, ezaguna dugun udako ordutegiak 06:30-21:50 tartea zehazten du eguzkiarentzat, eta, negukoa mantenduko balitz, 05:30-20:50 tartean geldituko litzateke.



**Aditu gehienak negukoa manten-
tzearen alde atera dira, kontsumo
energetikoak, bizitza erritmo zir-
kadianoak, lan ohiturak eta beste
nahasten diren eztabaida interes-
garrian. Izan ere, negukoa gertura-
tzen da gehien gure meridianoak
eskatzen duen GTM ordura, eguz-
kiarekin bat datorrenera, alegia.**
12:00etan goiza eta arratsa bereiziko
badira, abenduan 07:30-16:30 eta
ekainean 04:30-19:50 tarteetan ikusi
beharko genuke eguzkia. Arras ordu-
tegi arraroa egingo zaigu ia mende
bat daramagunean merkatuak –tren
sarearen hedapenak ekarri zuen or-
duak sinkronizatu beharra– eta geo-
politikak –ezaguna den Alemaniare-
kiko lerrokatzeak– ezarritako
ordu-eremuekin.

Stefano Maggiolok egin mapak
erakusten duenez, Galiziatik Errusia-
ko mugara arte ordu bera dugu eta
horrek lurralde gehienek eguzkiare-

kiko atzerapena izatea dakar, mundu mailan nagusi den joera bide batez, duela bost urte “Hogeita hiru orduko egunak” artikuluan azaltzen nuenez.

Azken finean lanaren/egunerokotasunaren ordutegira murrizten da kontua. Hamaika artikulua eta iritzi irakurtzen ibili naiz, eguzkiarekin esnatzearen garrantzia vs arratseta-ko aisia eguzki orduak izatea dikotomian kokatutakoak gehienak. Xelebrea egin zait proposamen horien guztien artean nire aburuz logikoe-na dena inori entzun ez izana: ne-guan eguzki argi gutxiago baditugu, zergatik ez ditugu lan ordu gutxia-go? Are, zergatik egiten dugu lan gauez? Noiztik egiten diogu aurre eguzkiaren logika eztabaidaezinarri?

Niri bederen berdin zait eskumuturrean dudak tramankuluak zein ordu markatzen duen, baina utziezadazue, mesedez, eguzkiarekin batera esnatzen! •